

BERROBI. Udal liburutegia erabiltzea ohitura bilakatu da herrian. Erabiltzaile eta mailegu kopurua handitu ditu 2005ean; egun, liburutegien sare nazionalan sartzeaz dago

Iñigo Terradillos.

Bi egunetan, astearte eta ostegun arratsaldetan, irekitzen ditu Berrobiko liburutegiak bere ateak, eta berriro ixten dituen arte etengabeko mugimendua izan ohi du. Eskolatik irteten diren gaztetxoentzat nahiz gurasoentzat ohitura bilakatu da bertara joatea. Hala dio liburutegiko arduradunak.

40 erabiltzailetik gora dira irakurtzera, margotzera, etxeko lanak egitera, liburuak eskatzera... joaten direnak; kopuru hori mantentzea lortu dugu, eta oso gustura gaude; gainera, 2004ko datuekin alderatuz, bai erabiltzaileak, bai eta maileguak ere gehiago izan dira. Bestalde, iaz izandako berrikuntzen artean, material aldaketa azpimarratzen du liburutegiko langileak beharrezkoak baitziren; Internet daukagu, eta ordenagailua eta inpresora berriak jarri dizkigute.

Hain zuzen ere, berrikuntza horiek behar zituzten, besteak beste, Euskadiko liburutegi sistema nazionala osatzen duten liburutegien sarea on line proiektuan egon ahal izateko. Berrobiko liburutegia sare horretan egongo bada ere, oraindik ez da erabiltzen hasi, baina hastear daude; sarean egoteak abantaila handiak ekarriko dizkie erabiltzaileei, liburuak aurkitzerakoan eta liburutegi desberdinen artean egongo den elkarlanak emango duen erraztasunagatik ere.

Urteko egitaraua

Aurten ere hainbat ekitaldi antolatuko dituzte Berrobiko liburutegian. Batetik, xake eta marrazki ikastaroak egiteko aukera dute gaztetxoek; xake ikastaroarekin urtarrilean ekin zioten eta maiatza bitarte iraungo du. Marrazki ikastaroa, berriz, martxoan hasi da eta apirilean eta maiatzan ariko dira marrazkiak eta koloreak lantzen. Gainera, ekainean eta uztailean, aurreko urteetan bezala, herriko festetako egitaraurako marrazkiak lantzeko ikastaroa egingo dute. Marrazki ikastaroa amaitzean, bertan egiten dituzten marrazkiekin erakusketa bat jarriko dutela ere iragarri dute. Bestalde, apirilean Haur Liburuaren Eguna ospatuko dute; bi ekitaldi hauek mailegua indartzea izaten dute helburu, eta emaitza onak jaso ohi ditugu. Halaber, apirilean eta maiatzean IV. Literatur Lehiaketa egingo dute.

Ekitaldi horiez gain, urtean zehar ipuin kontaketa saioak ere antolatzen dituzte Berrobiko liburutegian. Jende askok hartu ohi du parte, eta horregatik urtean bi edo hiru saio egiten ditugu.